

«Ostatu baten gakoa elkarlana da, ez baita enpresa arrunta»

ENEKO MAIOZ **LIZARTZAKO OSTATUKO** **KUDEATZAILEA**

Orexako Ostatuaren ardura dutenek zabaldu dute Lizartzako Ostata; herritarrekin batera zehaztu nahi dute ostatuak izango duen eskaintza // 6

«Batzuei lotsa ematen die turista direla esateak»

JOSUIZTUETA **BIDAIA**

Agurtzane Belaunzaran kazetariak bidaiari tolosarra elkarriketatuko du gaur, Amalur jardunaldien barruan // 2

Odei Arregik **erremonte** **profesionalean** **debuta egingo** **du larunbatean**

Tolosarra duela urtebete hasi zen erremontean, eta Oriamendi enpresaren eskaintza jaso du; oso pozik dago eman dioten aukerarekin // 7



AMASA-VILLABONA **FESTARAKO GOGOZ**

Sanmartinen egun handia izan zuten atzo Amasan, gazte egunarekin; baserriz baserri kalejiran aritu ziren kuadrillak, giro ederrean; San Martin Eguna ospatuko dute gaur, Amasan ez ezik, Alkizan eta Amezketan // 4

IRATISAZAR



ZATOZ EUSKALTELERA **AZAROAN ETA ESKURATU** **NETFLIX DOAN.**

Ez al duzu ikusi behar **El Juego del calamar?**
Tolosa eta Beasaingo dendetan izango gaituzu.

*Eskaintzak epe-muga dauka

Asier Imaz / Josu Artutxa

Erabat ezberdina izango da Josu Iztueta (Tolosa, 1957) Topic-en gaur arratsaldean egingo duen bidaia. Hausnarketak eta bizi-pen pertsonalak izango ditu oinarri, eta mundua bere begietatik ezagutzeko aukera eskainiko du.

Askok pentsatuko dute: ofizio ederra bidaiariarena.

Bai. Ez naiz hori bakarrik, baina hori ere banaiz. Askok oporrekin lotzen dituzte bidaiak; nire kasuan, lanaren parte direnez, beti oporretan nagoela pentsatzen dute. Bidaia bat ez da soilik alde batetik bestera mugitzea. Kulturaz edo animoz mugitzea ere bada. Gauza asko bateratzen dira. Nik hori egitea hautatu nuen, eta horretan jarraitzen dut 40 urte beranduago, beraz, nabari da ez naizela damutu.

Zuk, beraz, ez duzu gozatze hutsagatik soilik bidaiatzen?

Ez. Gustuko bizimodua eman dut, baina ez da erosoia izan. Norberak erosotasuna aukeratzen duenean, ziur beste bide bat aukeratzen duela, segurtasunez betea. Datozen egunak nolakoak izango diren erabakitzea aukeratu ahal izatea, pribilegio hutsa da. Nik zerbaitengandik ihesi mugitu behar izango banu, ez nintzateke bidaiaria izango.

Zure ibilbide profesionala aski ezaguna da. Gaur, ordea, zure alde pertsonalagoa ezagutzeko aukera izango dugu. Zer duzu ezkutatze?

[Barreak] Bidaia baten kontakizun orokorra egitea oso erraza da. Irudi batzuk hartu eta gidoi bat egitea besterik ez du eskatzen. Gaurko egitura, ordea, Alberto Luengok proposatutakoa da. Erabat aldatzen da ohiko hitzaldietatik. Nik eta Agurtzanek ez ditugu galderak adostu. Berak ondo ezagutzen nau eta badaki bidaiariak nolakoak garen. Gure beldurak, kezak, kontraesanak, koherentzia faltak eta larrialdiak izaten ditugulako. Akaso niri buruz ez daki dena, baina bai asko. Hori dela eta, ez dakit Agurtzanek nondik eta nora eramango nauen.


Ba al duzu zerbait gordeta, gaurko saioan lehen aldiz kontatuko duzuna?

Batek daki! Batez ere, lagun arte-

«Ezagutza handia dut, baina are handiagoa izan daiteke oraindik»

JOSU IZTUETA AZKUE BIDAIARIA

Amalur jardunaldien barruan, Agurtzan Belaunzaran kazetariak Josu Iztueta elkarrizketatuko du, gaur 19:30etik aurrera, Tolosako Topic-en; bere alde pertsonalagoa ezagutarazten saiatuko da bidaiari tolosarra



JOSU ARTUTXA

ko elkarrizketa eta solasaldietan ateratako pasartei buruz ariko gara. Agurtzaneri honakoa esan nion: Galderak filtrorik gabeak baldin badira, erantzunak ere horrela izango dira. Muturreko egoerak bizitzea egokitu zait, baina ez dut lotsarik nire bizitzako zenbait gertaera kontatzeko, hala nola, Finlandian kartzelan sartu gintuztenekoa edo aduana batean mozkor batek pistola buruan jarri zueneko.

Kontuan izan behar da Tolosa plaza berezia dela. Ez da berdina bizi zaren tokiarekin inplikaturako zerbait handik kanpo edo bertan kontatzea. Horregatik, autokritikarako ere leku egokia izan daiteke.

Jomugan duzun elkarrizketa**bat al da gaurkoa? Inoiz baino irekiagoa izango zara?**

Lagun arteko giroa partekatzen dugu Amalur jardunaldietan airtzen garenok, etxekoa. Erosoago sentituko naiz; horrek aukera

«Agurtzanek ondo daki nolako naizen; nik, ordea, ez dakit nondik eta nora eramango nauen»

emango dit beste gauza batzuk kontatzeko. Euskaraz izanik, errazago ariko naiz nire sentimenduez, eta gehiago gerturatuko naiz publikoarengana.

Alde pertsonalari begiratuta, zer nabarmenduko zenuke bisitatu duzun kontinente bakoitzetik?

Batetik Afrika dugu, Europaren atzetik gertuen dugun kontinentea. Beste mundu bat da. Bertatik ia beti heltzen zaizkigu berri txarrak, baina sekulako boterea du. Bertakoek baldintza gogorak dituzte, baina oso alaiak dira, eta dantzari eta kantuari lo-

tuta bizi dira. Dena ez da txarra, eta guztia ez da ona ere.

Bestetik, Ipar Amerikako herrialdeak elkarrengandik erabat ezberdinak dira. Duela 30 bat urte honakoa esan zidaten Kana-

«Saioa Tolosan izateak erosoago sentituko nau, eta aukera emango dit gauza berriak kontatzeko»

dan: «Estatubatuarrak oso harro daude estatubatuarrak izateaz; gu, berriz, harro gaude estatubatuarrak ez izateaz». Esaldi mundiala da, eta guretzat ere balioko luke: «Espainiarrak oso harro daude espainiarrak izateaz; gu, berriz, harro gaude espainiarrak ez izateaz». Hala ere, estatubatuarrak bihotz handiko herritarak dira.

Hego Amerikan herrialde asko daude. Bertako biztanleekin komunikatzeko helduleku ona da hizkuntza, izan gaztelania edota euskara, Euskal Etxeen kasuan. Politikoki, ordea, egoera larriak

bizitzea egokitu zaie, eta badira dituzun aurreiritziak hausten dituztenak ere.

Asia, berriz, gutxien ezagutzen duen kontinentea da. Nepal aldera joan izan naiz gehienetan. Euskal Herrian mendirako dugun zaletasunagatik, gertuagokoa den eremua da hori. Bertara joan gabe ere, leku asko ezagunak zaizkigu. Beste sinemen batzuk dituzte bertan. Mundua ulertzeko modu ezberdinak dituzte. Asiarekin, gainera, badut arantza txiki bat. Ez naiz ez Txinan ezta Indian ere egon, eta bi herrialde horietan bizi da munduko biztanleriaren heren bat baino gehiago.

Azkenik, Ozeanian, Australiako handitasuna, lehertasuna eta bakardadea nahiz Zeelanda Berriko txikitasuna eta errespetutako Mahoriak ezagutzeko aukera ere izan dut. Ondorio nagusi bat atera dezaket: nik ezagutza handia dut, baina are handiagoa izan daiteke oraindik.

Bidaiaria eta turista; turista eta bidaiaria. Bi hitz ezberdin dira...

Nik ez nituzke horrenbeste bereiziko. Jende klase bati turista dela esateak, lotsa ematen dio, gehienek hori egiten dutelako. Alberto Iñurrategiri behin esan nion mendian bera alpinista izango zela, baina ni espedizioko kidea besterik ez nintzela izango; beste lekuren batean bidaiariak izan gintezkeela esan nion, eta hirugarren batean, berriz, turistak. Aireportu batean, akaso gurgildun maleta daraman batek motxila daraman beste batek baino jarrera hobeia izan dezake.

Norbaitek Saharako basamortua ur botila batekin bakarrik gurutzatzeak ez du zerikusirik guk Groenlandia gurutzatzearekin. Horregatik, oso zaila da bereiztea; nik, gainera, ez dut oso gustuko bakoitza definitzea, jarrera kontua delako. Ondorioz, turista, bidaiari, antropologo edota psikologo rola izatea egokitu izan zait bidaia ezberdinetan.

MOTZEAN**Bidaiatzeko modu bat?** Bizikleta.**Herrialde bat?** Eskandinabiako Laponia.**Bisitatzeko gustatuko litzaizukeen leku bat?** India. Bietako bat, edo maitemindu edo nazkatu egingo naizela esan didate askok.**Berriz itzuliko ez zinatekeen leku bat?** Errusian esperientzia txarra izan nuen behin, baina horregatik ezin dut herrialde osoa aintzat hartu.

Bidaietan entzuten duzun musika. Benito Lertxundi, Itoiz, Mikel Laboa... batzuetan nostalgiko samarra naiz.

IRAGARKI LABURRAK**Salgai**

Telebista. Estreinatu gabeko telebista saltzen dugu. Samsung 6 markakoa da eta 30 hazbete ditu. UE32P4305 AK erreferentzia du. Prezioa: 120 euro. Interesdunek deitu.

tu ondorengo telefono zenbakira: 657 73 28 06.

Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak. Interesdunek deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

Haur liburutegia erabilgarri da dagoeneko

TOLOSA // Errota eraikinean kokatzen den haur liburutegiak zabaldu ditu ateak berriro. Astelehenetik ostiralerara 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita 0-16 urte bitarteko haur eta gazteentzat. Mailegua eta liburutegien arteko mailegua, informazioa, erreprografia, komikiteka, hemeroteka, bideoteka eta fonoteka, internet, ofimatika eta Wifi konexioa eskaintzen ditu, besteak beste.

Mendekotasuna dutenentzat egonaldiak

TOLOSA // Abenduan eta Gabonetan mendekotasuna edo desgaitasuna duten pertsonentzat adinekoen egoitzetan aldi baterako egonaldiak eskatzeko epea zabalik dago, eta azaroaren 12ra arte egin ahalko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaintzen du zerbitzua, eta mendekotasuna duten pertsonen arduratzen direnek atseden hartzea du helburu. Eskerak Tolosako Gizarte Zerbitzuetan egin beharko dira.

Gabonetako azokako postuetarako izen ematea zabalik

TOLOSA // Tolosako Plaza Zaharrean eta Alondegian izango da abenduaren 18an Gabonetako azoka berezia eta zabalik dago bertan postua jartzeko izen ematea. Postua ipintzea doakoa izango da, eta izena emateko azken eguna azaroaren 21a izango da. Eskera egiteko oinarriak eta eskabideak aurrez aurre Udaten edo erregistro elektronikoaren bitartez Tolosako Udalaren webgunean egin daitezke.



TOLOSAKO EGUTEGIA ESKURAGARRI

Atzo hasi ziren Tolosako egutegia banatzen herritarrei, eta gaur eta bihar, 09:00etatik 12:30era ere eskuratu ahalko du Zerkausira gerturatzen denak. Bizitzaizan da aurtengo egutegiaren gaia, eta Maider Gaztelumendiren Bizitza hankaz gora argazkia aukeratu dute azalean kokatzeko. Izarne Iglesias Tolosako kultur zinegotziak irabazleei banatu di egutegia, eta parte hartzaile guztiei eskerrak eman dizkie aurkeztu dituzten argazkiengatik. ATARIA

Argazki Rallya egingo du igandean Aizkardik

Igandean izango da, eta 09:00etan abiatuta egingo dute bederatzi kilometroko ibilbidea; Aizkardiren egoitzan eman behar da izena

Erredakzioa Amasa-Villabona

Aizkardi mendi elkartek XIII. Argazki Rallya antolatu du. Igandean honetan, azaroaren 14an egingo dute hitzordua eta parte hartzaileek izena Aizkardiren egoitzan eman beharko dute, Larrea auzoko 18. zenbakian, dohainik.

Igandean 09:00etan jarri dute abiatzeko ordua eta antolakun-

tzak zehaztutako ibilbidean zehar ateratako argazkiak sartuko dira lehian. Lau orduko epean egin beharko da 9 kilometroko luzera duen ibilbidea.

Argazki onenak 150 euro eskuratu dute, bigarren saria lortzen duenak 100 euro eta hirugarrenak 75 euro. Haurren kategorian berriz, 12 urtez azpikoetan, bi argazki onenen egileentzat mendi materiala izango da opa-

ri. Gainera, publikoak hautatutako argazki onenaren egileak bi lagunentzako afaria irabaziko du Iturrigoxo jatetxean, Amasan.

Bestalde, Argazki Rallyan parte hartzen duten lanekin Aizkardi elkartek erakusketa antolatu du Villabonako Gurea zinema aretoan. Azaroaren 22tik 26ra izango da ikusgai, 37. Mendi Astearen egitarauaren barruan, hain justu.

Tolosaldeko Itaiak ekitaldi sorta antolatu du datozen egunetarako

Erredakzioa

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Egunaren harira, Tolosaldeko Itaiak hainbat ekitaldi antolatu ditu, *Egungo kultura progresista: Emakumeon ahalduntzea ala Indarkeriaren normalizazioa?* izenburupean.

Batetik, gaia lantzeko erakusketak jarriko dute eskualdeko hainbat herritan. Ibarra, bihar izango da ikusgai, plazan, 16:30etik 20:00etara; Zizurkilaren larunbatean, Joxe Arregi plazan, 18:00etatik 20:00etara; Alegian, hurrengo ostiralean, azaroaren 19an, plazako arkupeetan, 18:00etatik 20:00etara; eta Tolosan, hurrengo larunbatean, azaroaren 20an, Trianguloa plazan, 11:30etik 13:30era.

Bestetik, *Oh gu hemen!* saioaren proiektzioa egingo dute Ibarako gaztetxean etzi, larunbatean, 17:00etan. Horrelako galderi erantzuna ematen saiatuko dira saioan: «Ze proposamen egingen dira indarkeria matxista kasuetan esku hartzeko? Zein da gaur egungo egoera?». Saioaren ostean, kafe tertulia egingo dute.

Azaroaren 27rako, berriz, egun osoko egitaraua antolatu du Tolosaldeko Itaiak. Tolosan izango da, eta hitzaldiak izango dira, bazkaria eta arratsaldean zehar kontzertuak.

Azaroaren 25erako Donostian *Indarkeria matxistari aurre egiteko sozialismoa eraiki* lelopean deitu duten manifestaziora joateko deia ere egin du Itaiak. Tolosan 17:05ean eta Villabona-Zizurkilan 17:20ean egin dute hitzordua trenez joateko.

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Urola Kostako
eta Goierriko
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 63,5mm): 110 € • Harpidedunentzat 55 €
HANDIA (124mm X 63,5mm): 160 € • Harpidedunentzat 80 €
ESKERTZA (38mm X 63,5mm): 60 € • Harpidedunentzat 30€
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95

Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu • Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu



Atzo goizean, kalejiran ibili eta berriro ekin aurretik, Iturrioxon egin zuten parada, bigarren gosaria egin eta ibilbidearekin indartsu jarraitzeko. I.S.A.

Sanmartinetan goiztiar ibili dira amasarrak

Goizean goiz, Amasa kafetegian gosaldu eta etxez etxe kalejira egin zuten; batzuk Villabonan eta besteak Amasan zehar ibili ziren



Etxe batetik besterako bidea trikilariek alaituta egin zuten. I.S.A.



Eguraldia punta-puntakoa, eta umorea ere alde-aldekoa izan zuten. I.S.A.



Etxe atarietan mokaduak eta tragoak atera zizkieten kalejiran zebiltzanei. I.S.A.



Zatoa hustu ahala, berriro betetzeko tartea ere hartu zuten. I.S.A.

Irati Saizar Artola

Egun handia zuten atzokoa Amasan. Sanmartinak ari dira ospatzen eta nahiz eta San Martin eguna gaur izan, gazte eguna ospatu zuten atzo, goizean goizetik. Halaxe azaldu zuten Gurutze Astiasaran eta Kepa Otegi amasarrak: «Sanmartinetako egunik garrantzitsuenak da gaur [atzo] guretzat, gazteen eguna, baserri baserri ibili ohi gara kalejiran eta eguraldia ere lagun izanik giro ederrean gabilta».

Goiztiarrak dira, horretan zailantza izpirik ez. 06:00etan elkartu ziren Villabonako Amasa kafetegian, bapo gosaldu eta eguna indartsu hasteko. 30 lagun inguru elkartu ziren, eta bi taldetan banatu ziren ondoren. Batzuk Villabona inguruan egin zuten ibilbidea, Legarreta eta Otelarre auzoak bisitatu, eta beste taldea Amasako baserrietatik barrena ibili zen kalejiran, Goiburu eta plaza inguruetan. Goizak aurrera egin ahala, geroz eta jende gehiago batu zitzaion festara.

«Nabari da iaz ez zela festarik egin; aurten jendea gogoz dago eta ia etxe guztietan atera zaigu norbait», esan zuten. Geldialdi bakoitzean, suziria bota eta fandangoa eta arin-arina dantzatu zituzten eta etxe atarietara atera zirenek mokaduak eta tragoak eskaini zizkieten.

Kalejirak mahaiaren bueltan ere bazuen jarraipena. 09:30 inguruan, Amasako taldea Iturrioxora joan zen bigarren gosaria egitera, eta Villabonako taldea, berriz, Itzalpe tabernara. Ondoren, eguerdira bitartean, berriro ere, kalejirari ekin zioten. Ohitu-rei jarraituz, goizeko bueltaren ondoren, Uxo-Toki elkartean elkartu ziren bazkaltzeko eta arratsaldean soka dantza eta aurrekua eskaini zituzten plazan. Gauean, berriz, gazteen afaria egin zuten Iturrioxon eta ondoren, «bakoitzak ahal duena» egingo zuela kontatu zuten.

SAN MARTIN EGUNA GAUR

Gaur, San Martin egunean, meza santua egingo dute 10:00etan. Gainerakoan, ez dute ezer antolatatu, baina, bihar jarraituko du festak. 17:00etatik 19:00etara bitartean puzgarriak izango dira frontoian, eta ondoren, txokolate beroa hartuko dute. 17:30ean, Dudik-P taldeak kontzertua eskainiko du eta 19:30ean XIV. Bakailu Lehiaketa egingo dute Iturrioxon. Gauean, 23:30ean, Distopia elektrotxarangak eskainiko du kontzertua, eta larunbatean ere jarraituko du festak.

Beltzaren plaza berritzeko proiektua, parte hartze bidez osatua

Amezketako Udalak Beltzaren plaza berritu nahi du, eta proiektua egiteko haurren eta gurasoen iritzia hartu du aintzat; urte berriarekin batera espero dute plazako obrak egiten hastea

Eneritz Maiz Etxarri Amezketako

Amezketako Udalak Beltzaren plazari berritze bat eman nahi dio, eta horretarako, herritarren artean parte hartzea bultzatuta ari da proiektua gauzatzen. Haurren eta gurasoen ekarpenak jasota dituzte, eta proiektuan azken aldaketak egitea baino ez zaie falta.

Beltzaren plaza eremu «hotz» moduan definitu du Mikel Arteaga zinegotziak: «Hotza, hormigoizkoa, zakarra,... dela ikusten dugu, eta saskibaloi eta tenis pista daude, baina oso-oso erabiler txikia ematen zaie».

Egoera ikusita, zerbait egiteko asmoa azaldu zuen Amezketako Udalak. Hasiera batean, kirol anitzetako pista bat jartzea zela asmoa kontatu du Arteagak. Lanketa egiten hasi zirenean, ordea, ondorio batera iritsi ziren udal ordezkariak: «Berriz ere betiko kirol horiei espazioa ematen

ari ginela ikusi genuen». Lehenetik ere futbol zelaia badute herrian, eta berriro ere hori jartzea ez zuten ikusten; «bestelako elementu batzuk jarri beharra ikusten genuen plaza horretan», esan du.

Udal ordezkariak bakarrik gauzatu beharrean, hasteko, erabiliko dutenei ahotsa ematea erabaki zuten, eta parte hartze prozesu bat abiatu zuten herriko umeekin. Iazko Gabonetan egin zuten: «Umeei galdetu genien parke berrian zein elementu edukitzea gustatuko litzaiekeen», argitu du Arteagak.

Ostean, gurasoei ere bilera bat egin zuten, haurren parte hartzean zer atera zen gurasoei ere jakitera emateko. Eta gurasoen ikuspuntua ere jaso zutela azaldu du zinegotziak: «Bertan, kirol anitzetako pista bat jarri behar dela atera zen, baina era berean, lekua utzi behar dela beste elementu batzuetarako».



Gaur egun, besteak beste, saskibaloi eta tenis pista daude Beltzaren plazan. N. ROLDAN DE ARANGUIZ

Zinegotziak aukeratuak izan diren elementuetako batzuk arerratu ditu. Horien artean, egurrezko egiturak daude, «haurrak gora eta behera igotzen ibiltzeko». Eta horiez gain, skate parke

«Umeei galdetu genien parke berrian zein elementu edukitzea gustatuko litzaiekeen»

MIKEL ARTEAGA
ZINEGOTZIA

bat eta ohe elastiko bat ere jarriko dituzte.

Parte hartze prozesuan jasotako ideia guzti horiei tiraka eman diote forma proiektuari. Udalak duela egun gutxi aurkeztu zien proiektua herritarrei, eta bertan atera ziren azken aldaketak batzuk baino ez zaizkie falta

proiektuan txertatzeko. Honela, proiektua idazteaz bukatuko dute datozen egunetan, eta behin betikoa idatzitakoan lehiaketara ateratzea faltako litzaieke. Lehiaketara atera ostean, obra esleituko dute, eta obrak urte berriarekin hastea aurreikusten dute.

Proiektua gauzatu ahal izateko diru laguntzak eskuratzen ahaleginduko da Amezketako Udalak. Alde batetik, Leader programara aurkeztuko dira, eta bestetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak kirol ekipamenduetarako dituen diru laguntzetara.

AZPIKO GARAJEAK, KONTUAN

Parkeaz gain, Beltzaren plaza osotasunean landu nahi izan du udalak. Guztiari eman nahi diote berrikuntza bat. Hori horrela, barandak, sareak, lurra,... guz-

tiak aldatuko dituzte, hau da, plaza osoa berrituko dute.

Hormigoia nagusi den plazan, eremu berdeak txertatzea dute helburu, eta leku «atseginagoa» bihurtu nahi dute. Landareak eta eserlekuak ez dira faltako.

Esan behar da, plazaren azpiko aldean garajeak daudela, eta udalak hori ere kontuan izan duela: «Egingo diren lanek garajeetan eraginik izan ez dezaten osatu dugu proiektua». Ez dute lurrik zulatuko garajeetara urik sartu ez dadin. Elementu ezberdinak kokatzeko hormigoizko zapatak egingo dituzte, edota gomazko lurra jarriko dute.

Bukatzeko, Arkaitzpe tabernak terraza du Beltzaren plazan, eta terraza ere bere horretan mantenduko dute, eta lekua utziko dute terraza jarri ahal izateko.

Erretore etxeko etxebizitza, alokairuan

Alkizako Udalak Erretore etxeko behe oinean dagoen etxebizitza alokairuan jarriko du; errenta kontratua urtebetekoa izango da

Erredakzioa Alkiza

Alkizako Udalak bere jabetzakoa den Erretore etxeko beheko solairuan kokaturik dagoen etxebizitza alokairuan jarri du. Helburu horrekin onartu ditu etxebizitza alokairuan esleitzeko oinarriak.

Urtebeteko errenta kontratua izango da, eta hileko alokairua 425 eurokoa da. Argindarra, gasa, ura eta hondakinen gastuak maizterraren kontura izango dira.

Esleipenean parte hartzeko interesa duenak udaletxean bertan edota Alkizako Udalaren Alki-

za.eus webgunean eskura ditu eskaera orria eta baita etxebizitza alokairuan esleitzeko oinarriak ere.

Parte hartzeko eskabidea eta dokumentazioa aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, eta eskaerak udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira.



Erretore etxeko behe oinean dago alokairuko etxebizitza. J.M.

Irati Saizar Artola

Duela urte eta erdi inguru Orexan elkartu zituen ATARIA-k Pello Garmendia eta Eneko Maioz, Orexako Ostaturia aurrera eramateko hartutako arduragatik. Bada, orain, Lizartzako Ostaturia hartu dute biek, eta «egokitze fasean» daude: herriari zein zerbitzu eman nahi dioten zehaztu nahian ari dira, eta herritarrekin eta udalarekin elkarlanean egin nahi dute hori.

Orexan iaz eta Lizartzan aurretik. Nolatan?

Nahiko bide naturala izan da. Orexan beste ostatu eredu bat egiten saiatu ginen, herriari eta herri proiektu bati lotutakoa. Ia urte eta erdian demostratu dugu funtzionatu dezakeela eta eredu txukun bat izan daitekeela aurrera begira. Lizartzara etortzea horren segida izan da. Aukera hori sortu zenean, ikusi genuen aukera bat izan genezakeela antzeko proiektu bat egiteko Lizartzan. Eta gertutasunagatik ere iruditzen zitzaigun funtzionatzeko aukera zegoela. Lizartzak behar hori zuen eta gure esperientzia baliagarria izan zitekeela iruditu zitzaigun.

Irailean egin ziren kultur jardueretarako ireki zenuten lehenik; orain, egunero duzue zabalik.

Momentuko erabakia izan zen. Egun batetik bestera aurreko kudeatzaileek utzi egin zuten ostaturia, eta lehiaketaren emaitzatik hiru-lau egunetara irekitzea lortu genuen. Udalak asko lagundu zigun. Hasiera batean, asteburuetan zabaldu genuen, kultur ekitaldiak zeudela aprobetxatuz. Hilabete hori gu antolatzeke, plantilla osatzeko erabili genuen, eta urriko lehen egunetik egunero irekitzen hasi ginen.

Deskantsurako egunik gabe.

Hori ere apustu bat izan zen: jendeak tabernarako ohitura berreskuratu zezan nahi genuen. Zeren, egun batean ixtearekin, eta herriko beste taberna batek ere egun horretan ixten bazuen, momenturen batean herria tabernarik gabe utziko genuela ikusten genuen. Gure ereduari, txanda batzuk antolatu genituen, eta garbi genuen langile batzuk egon behar zutela eta haiak atera behar zutela hau aurrera. Azken finean, egunero zabalik dagoen zerbitzu bat da eta herriari begira garrantzitsua da.

Orexatik esperientzia hartuta etorri zarete Lizartzara. Ze errealitatekin egin duzue topo?

Herri bakoitzak bere errealitatea

«Herritarrek Lizartzako Ostaturia definitzen laguntzea nahi dugu»

ENEKO MAIOZ LIZARTZAKO OSTATUKO KUDEATZAILE BERRIA

Zabalik da Lizartzako Ostaturia berriro ere, kudeatzaile berriekin; oraingoan, Orexako Ostaturaren ardura duten berberak hartu dute Lizartzakoa irekitzeko ardura: Eneko Maiozek eta Pello Garmendiak



I.S.A.

dauka. Orain denbora bat beharko dugu herrira egokitzeke. Guk garbi geneukan Orexako eredu lagungarria izango zela, baina ez genuen Orexako eredu berbera Lizartzan jarri nahi. Ikusten dugulako herri bakoitzak errealitate, ohitura desberdinak dituela, eta horiek esplotatu behar dituela. Egun, egokitze lan horretan ari gara: batetik, jendearen tabernarako ohitura berreskuratzen, eta bestetik, guk ere jakin behar dugu jende hori erakartzen.

Lortzen ari zarete?

Gauza txikiekin ari gara lortzen, bai. Bertako produktuekin lan egiten saiatzen ari gara, nahiz eta Orexako eta Lizartzako produktuak nahiko antzekoak izan, baina herriko berezitasunen bat ematea garrantzitsua da. Eta ohiturari begira, adibidez, ostiraleroko pintxo potea egiten hasi gara. Egia esan, jendearen erantzunarekin oso pozik gaude, baina argi daukagu, azken batean, inertiak ere asko eragiten duela.

Zein zerbitzu eskaini nahiko zenituzkete?

Zaila da esatea ze zerbitzu eskaini nahi ditugun. Garbi dagoena da ostalaritzako establezimendu bat dela, eta bazkariak, afariak eta tragoak eskaini behar ditugula. Baina, adibidez, niri sekulako ilusioa egin zidan, ireki eta segituan, garraiolari bat etorri zenean pakete bat entregatzera. Ton-takeria bat ematen du, baina egia da zerbitzu bat ematen duela ostaturiak eta jendea hasi dela konturatzen egunero daukagula irekita, eta, beharbada, pakete bila datorrenak kafe bat edo pintxo bat hartuko duela. Zerbitzu txikiak dira, baina garrantzitsuak. Horrelako zerbitzuekin herriko errealitatera egokitzen joan beharko dugu, jendeak eskatzen duenaren arabera zerbitzuak emateko.

Lekua ere proposa du, plaza erdian dagoelako.

Potentzial handia du zentzu horretan. Kokaleku oso ona du. Kontxerik gabeko gunea da gainera,

bai haurrak jolasteko, bai udan terrazan egoteko. Horrek kanpora begira ere lagundu diezaguke. Txiste modura esaten genuen Orexako aldapan artean gustura hartuko genukeela horrelako zelai bat. Eta egia da, Lizartzak herri handiago bat eskaintzen digu eta lekua ere pribilegiatua da. Bi ostaturiak osagarriak ikusten ditugu: Orexak inoiz ezingo du horrelako leku bat eduki aurrean, eta Lizartzak segur aski Orexak daukan lokala ere ezingo du eduki. Bakoitzak bere berezitasunak ditu eta bakoitza bere herriari lotuta egongo da.

Orexan ostaturia bakarrik dago, eta Lizartzan, ostaturiaz gain, taberna gehiago ere badaude.

Bai, hala ere garrantzitsua iruditzen zaigu orokorrean ostaturien mailan lortzen ari den kalitatea. Inguruan geroz eta ostaturia gehiago daude geroz eta hobeto funtzionatzen dutenak, produktua zaintzen dutenak, bertako produktuekin lan egiten dutenak

eta uste dugu hori konpetentzia ez ezik, ona dela guretzat. Kanpoko jendearen artean zirkuitu moduko bat sortu dago ostaturiaz ibiltzeko, eta momentu honetan, gure helburua, ohitura horietan sartzea litzateke. Horretarako, denbora pixka bat pasa beharko da, baina uste dugu helburua hori izan behar duela.

Ordutegi aldetik, nolakoa da eskaintza?

Egunero 10:00etan irekitzen dugu, eta ixteko ordu finkorik ez badago ere, astean zehar 21:00-22:00 aldera ixten dugu eta aste-uruetan 12:00-01:00 aldera. Ordutegi malgua da, badakigu ordu asko direla, baina ohitura hori sortzeko ordutegi jarraitua izatea garrantzitsua da. Egia esan, ohitura horiek moldatzeko gure aldetik ez dago arazorik: esaterako, ostegunero afaltzera etorriko bada kuadrilla bat, egokituko ginateke. Azken batean, hor dago gakoa, lizartzarrek Lizartzako ostaturia zer den eta zer zerbitzu eman behar dituen definitzen laguntzea nahi dugu. Gu ez gara lizartzarrak, ustez baliagarria izan daitekeen esperientzia daukagu, baina azkenean beraiek dira ostaturia herrira egokitzen eta erakargarri egiten lagundu behar ditugutenak, baita kanpora begira ere. Garbi daukagula gure enbaxadore onenak herritarrek direla. Beraiek egiten duten propagandaren arabera eta beraien ilusioaren arabera dator jendea hona.

Sukaldeari dagokionez, nola antolatu zarete?

Sukaldaria ostegun arratsaldetik igandera bitartean egon ohi da, baina menuak aste guztian zehar ematen ditugu. Irailean ogitarte-koekin hasi ginen, eta irailetik aurrera plater konbinatuak sartu genituen. Orain, azaro aldera, menu bat egiten hasi gara, menu finkoa izan beharrean, asteburuz asteburu aldatzean joaten garena, berrikuntzak sartzen saiatuz. Oraindik ez dugu karta modukorik egin, egokitze fase horretan gaudelako eta baliabi-deak ere murriztzak direlako, besteak beste, sukaldearen tamainagatik. Gauza ezberdinak egiten ari gara, ordea, jendearen gustuak nondik joan daitezkeen jakiteko. Ostaturia batean gakoa elkarlana da, hau ez da enpresa normal bat, elkarlaneko proiektu bat da, non udalak, herritarrek eta ostaturiak batera egin behar duten lan. Denoi dagokigu hobekuntza horiek proposatzea eta hurrengo ildoak zeintzuk izango diren ikustea.

Erremonte profesionalean debuta egingo du Odei Arregik


Pilotari tolosarra orain urtebete eskas hasi zen erremontean jokatzeko ikasten, eta profesional bezala bere lehen partida jokatu du larunbatean Galarretan

Imanol Garcia Landa Tolosa

Egun berezia izango da larunbata, azaroaren 13a, Odei Arregi tolosarrarentzat. Erremonte profesionalean debuta egingo du Oriamendi enpresarekin, Hernaniko Galarreta pilotalekuan. 17:00etan hasiko da jaialdia eta bere debuteko partida lehenengo izango da. Atzelari moduan jokatu du, bere aurrelaria Goikoetxea V.a izango da, eta aurkari Zaldia anaiak izango dituzte. Jaialdiko bigarren partida binakako txapelketakoa izango da.

COVID-19aren konfinamenduaren erdi aldera dei bat jaso zuen Arregik. «Palaren bitartez ezagutu nuen lagun batek esan zidan Oriamendi enpresako komunikazioa eramaten zuela, erremonteari bultzada eman nahi ziotela, eta pilotariak behako zituztela», azaldu du tolosarrak. «Frontoian esperientzia zuten pilotarien bila zebiltzala eta probatzeko esan zidan». Pausoa eman zuen Arregik, baina ez zuen espero azkenean profesional bezala aritzeko aukera sortuko zitzaionik.

Horren aurretik erremontean aritu gabea zen Arregi. «Erreminta espezifiko batzuk behar



Odei Arregi, debuta egiteko prest. ORIAMENDI

dira, ez direnak edozein tokitan lortzen. Frontoiak ere bere neurriak behar ditu, eta oso kirol zaila da, nik frontoian orain arte jokatu dudak zaila ikasteko», esan du tolosarrak. Hasieran gidariak behar izaten direla gaineratu du, nola jokatu behar den eta zer arrisku dituen ezagutze-

ko. «Ez nuen ezer ezagutzen erremontean, ezta erremontistak ere, Galarretan sekula egon gabe nintzen, eta niretzat azkenean ere ezustekoa izan da nire burua erremontista profesional bezala ikustea».

Urte hasieran afizionatuen txapelketa moduko bat egin zu-

ten, barrura begirakoa, eta hor parte hartu zuen Arregik. Orduan aurrelari moduan aritu zen eta batez ere horrela aritu da prestatzen, baina duela bi hilabete-edo atzelari bezala aritu zen entrenamendu batzuetan, eta ondo moldatzen zenez, eta enpresak behar gehiago zuenez postu horretan, atzelari bezala egingo du debuta.

Arregik bizi guztia frontoietan daramala dio. Hasieran eskuz, gero frontenisean eta ondoren palaz aritu da. «Erremontea oso urruti ikusten duzu, erabat aldatzen den modalitatea delako», esan du. «Hasieran asko frustratu nintzen, palan ere asko jaitsi zelako nire maila. Azkenean zirt edo zart egin behar nuen, eta pentsatu nuen beste erronka bat zela. Aurreko modalitateak pixka bat dominatzera iritsi naiz, eta ikusi nahi nuen modalitate honetan zer egiteko gai nintzen». Hilabeteen poderioz mailaz igotzen joan da eta orain debuta egiteko unea iritsi zaio. Hitzarmena 2022ko abenduaren 31 artekoa izango du. «Oso gustura nago eman didaten aukerarekin, eta orain gehiago ikasi eta emandako aukera aprobetxatu nahi dut», esan du Arregik.

Jexux Mari Otaño omenduko du Elorri Aldapak

Erredakzioa Alegia

Iaz zendu zen Jexux Mari Otaño alegiarrari omenaldia egingo diote larunbatean Elorri Aldapa saskibaloitaldekoek. Herriko elorri kiroldegian izango da, eta 17:00etan hasiko den Elorri Aldapa eta Bergara Soraluze taldeen arteko partidaren atsedena lizean egingo dute. Otaño herriko Languerre txirrindulari elkarreko presidentea izan zen, eta Elorri aldapa saskibaloitaldetik azaldu dutenez, «hainbat txirrindulari proba antolatu eta beste hainbatetan lagundu zuen. Txirrindularitzaren alde lan handia egin zuen eta horregatik omenaldia egin nahi diogu».

Eskualdeko pilotariak Gipuzkoako finaletan

Erredakzioa

Eskuzko lehen finalak jokatu dituzte, asteburuan, Ezker Hormako Klubaren Arteko Gipuzkoako Txapelketan. Bihar, bi final izango dira Villabonako Behar Zana frontoian, 19:00etatik aurrera. Eskuz binaka, nagusien 2. mailan, Tolosa 2 (Ander Perurena-Martxel Izutueta) eta Legazpi lehiatuko dira; eta nagusien 1. mailan, Behar Zana (Xabier Urbietak-Jon Urbietak) eta Lapke 1. Idiazabalgo Igarondo pilotalekuan, etzi, 11:00etan hasita beste bi final jokatu dira. Bigarrenen, nagusien ohorezko mailakoa, Tartaloetxe eta Tolosa (Iñaki Elola-Julen Aizpuru) ariko dira.

III. Mendi Duatloia egingo dute larunbatean Adunan

I. Garcia Landa Aduna

Aduna beste behin izango da Euskal Herriko Mendi Duatloi Zirkuituko azken proba. Iaz ez zen posible izan egitea, azken unean ezarri ziren osasun neurriengatik bertan behera geratu zelako, baina aurrean antolatu ahal izan dute. Adunako III. Mendi Duatloia larunbat honetan egingo dute, azaroaren 13an, eta 15:00etan hasiko da herriko plazatik.

Antolakuntzako kidea den Xabi Tejeria zinegotziak azaldu

duenez, gogoz aritu dira prestaketa lanetan, besteak beste, iaz azken unean bertan behera geratu zelako. Ibilbideak ez du aldaketarik izango: korrika egingo den lehen sektorea 3,4 kilometro izango ditu, bizikletaz egingo den bigarren sektorea 14,5 kilometro, eta korrika egingo den hirugarren sektorea 1,7 kilometroko. Herriko plaza izaten da probaren erdigunea, irteera eta helmuga izateaz gain, sektore batetik besterako aldaketak ere bertan egingo direlako.

Izen ematea Kirolprobak.com

webgunearen bitartez egin ahal da eta parte hartzeko bi aukera daude: banaka zein errelebo. «Binaka edo errelebo egiteko aukera jartzen da proba zertxobait samurrago egiteko, eta jende gehiago animatzeko parte hartzera», azaldu du Tejeriak. Plaza kopurua ez bada betetzen, egun berean ere aukera izango da Adunako plazan bertan izena emateko. «Normalean jendeari kosta egiten zaio aurretik izena ematea, baina antolakuntzarentzako egokiagoa izaten da hori», esan du Tejeriak,

eta batez ere parte hartzeko gonbita egin du.

Zirkuituko azken proba izanik, Adunako irabazleak jakiteaz gain, zirkuituko txapeldunak zein izango diren jakingo da, eta horrek beste interes puntu bat jartzen dio. Gizonezkoetan Eneko Gurrutxaga amasarrak aukeratu ditu zirkuitua irabazteko, azken hiru probak irabazi ostean.

Beste urteetan egin moduan, larunbatean afaria egingo dute, zirkuituari mahaiaren bueltan amaiera emateko. Bertan zirkuituko txapeldunei ematen zaizkie sariak. Aburuz sagardotegian izango da afaria, eta helduek 35 euro eta haurrek 20 euro ordainduko dituzte. Txartelak lortzeko, larunbatean bertan mendi duatloiko antolakuntzako kideei galdetu daiteke.

**BILLABONA FKE**
Arratzain futbol zelaia

PREFERENTE MAILA
Larunbata 13, 16:00etan
BILLABONA F.K.E.
DANENA K.E.

OHOREZKO KADETE MAILA
Igandea 14, 16:00etan
BILLABONA F.K.E.
VASCONIA C.D.

2010 eta 2011ko ALEBIN MAILA
Igandea 14, 09:30ean hasita

1. JUBENIL MAILA
Igandea 14, 18:15ean
BILLABONA F.K.E.
INTXURRE K.K.E.

 Billabona Fke



OSTEGUNA, 2021EKO AZAROAK 11
Argitaratzailea:
Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeca Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizaletxe
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661678 818, publi@ataria.eus

Tolosa: 687 410 082, tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022.
villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetalea: 687 410 022.
anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118, ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034.
alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 1132, kirolak@ataria.eus
Bezero arretra zerbitzua: 943 30 43 46



Ataria.eus

ATARIA IRRATIA
107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Balarraín,
Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Golatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta,
Irura, Larrauri, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:



Bizikidetzaren alde jarraitzeko konpromisoa

Tolosako Udalean ordezkariak duten alderdiek adierazpena irakurri eta lore eskaintza egin dute Biktimen Memoria Egunean

Josu Artutxa Tolosa

Tolosako Udalak, bertan ordezkariak duten alderdi guztien elkarlanari eta kontsentsuari esker, azaroaren 10a (Biktimen Memoria Eguna) baliatu du adierazpen instituzional bateratua irakurri eta Pizkundea plazan dagoen oroitarrian lore eskaintza egiteko. «Bizikidetzaren sustatzeko bide horretan, gure herrian izandako giza eskubide guztien urraketa larrien inguruko memoria transmititzea eta egia guztia ezagutzea ezinbesteko da», azpimarratu dute ordezkari politikoei.

Tolosan, sufrimendu egoera asko eta oso desberdinak gertatu direla eta gertatzen direla gogoratu dute: «Batzuk ezagunagoak, nabarmenagoak, baina badira ere isilean egunerokotasunari txertatuak eta gure ingurune hurbilean gordeta izan diren bizipen eta egoera isilagoak ere. Horiek ere azalera ekarri nahi ditugu».

2006an hasi zuen udalak memoria berreskuratzeko lanketa, Tolosan izandako eta tolosarrek pairatutako indarkeria eta giza eskubideen urraketen inguruko egia ahalik eta modu zabalenean ezagutu eta dokumentatzeko. Aranzadi Zientzia elkartarekin elkarlanean, dagoeneko bi liburu argitaratu dira, eta une hone-



Lore eskaintza egin zuten atzo, Pizkundea plazan. J. ARTUTXA

tan, abian da 1960tik gaur egun arte izandako giza eskubideen urraketen ikerketa. Orain arte egindako lanen edukiak eta abian den ikerketaren emaitzak, joan den urtean aurkeztu zuten *Tolosaoroimena.eus* webgunean daude jasota.

EGIA, JUSTIZIA, ERREPARAZIOA

Bizitza, giza duintasuna eta giza eskubideak beste edozein kausa, ideia politiko edo estatu-arrazoien gainetik egon behar dutela, eta beti errespetatu behar direla nabarmendu dute politikariek: «Horrenbeste biktima eragin dituen indarkeria bidegabea izan dela aitortu nahi dugu eta bikti-

ma guztiei gure elkartasuna eta hurbiltasuna adieraztearekin batera, egia, justizia, aitortza eta erreparazioa eskatzen dugu biktima guztientzat».

Horregatik, elkar entzutea eta biktima guztiek izandako min, sufrimendu eta bizipen guztiak aitortzea, gure gizartearen eman ziren urruntzeak gainditzeko abiapuntua direla gogoratu dute. «Indarkeria adierazpenak eta giza eskubideen urraketak ez dira inoiz gehiago gure artean gertatu eta justifikatu behar, eta giza eskubideak urratzen dituen edozein ekintza Tolosako udal ordezkarien erabateko oposizioa izango du».

OSTEGUNA 11

AGENDA

Sanmartinak

Alkiza. 14:00. Jubilatuen bazkaria.
17:00. Txotxongiloak kultur etxean.
Amasa. 10:00. Meza.
Amezket. 10:00. Puzgarriak. 12:30. Meza. 14:00. Bazkaria. 16:30. Jolasak frontoian. 18:00. Merienda.

Deialdiak

Berastegi. Iñigo Aranbarriren *Munduko tokirik ederrena*, irakurketa klubean. Liburutegian, 18:00etan.
Baliarrain. Lurtaro elkartaren aurkezpena, 19:00etan.
Tolosa. Amalur jardunaldiak: losulzueta, Topic-en, 19:30ean.
Tolosa. *Un segundo* filma, Leidor aretoan, 19:00etan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Pasahitza. Magazina.
15:00. Entzuteko jaioak. Musika.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
20:00. Musikasi. Musika klasikoa.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!; **09:30.** Gaurkoan Tolosalde; **15:00.** Elkarriketap; **17:30.** Gaurkoan Tolosalde; **21:30.** Gaurkoan Tolosalde; **22:00.** Pintxo-Pote

FARMAZIAK

Gaur

TOLOSA. Egunekoa. I. Olarreaga. Korreo kalea, 2. 943 67 0128.
TOLOSA. Gauekoa. L. Azpiroz. Larra-mendi kalea, 6. 943 67 5118.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Eguraldi ederrak jarraitzen du. Egun osoan zehar behe-hodei batzuk agertuko dira eta zerua ez da erabat urdin agertuko, baina ez dute bestelako ondorioz ekarriko eta giro lasaia izango dugu. Haizeak aldakor joko du, orokorrean ahul eta tenperaturak beste koska bat egingo du gora, 15-16 graduan joz goia.

Bihar. Giro motelagoa izango dugu. Egun osoan zehar behe-hodeiak nagusi izango dira eta ez da baztertzeko uneren batean euri-lagar modura zer edo zer bustitzea. Hala ere, oso euri gutxi botako du. Haizeak mendebal/ipar-mendebaldetik joko du eta tenperaturak koska bat behera egingo du, 14-15 graduan joko duelarik goia.

Tolosaldeko ATARIAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

USABALGO LASKORAIN IKASTOLA KOOPERATIBA ELKARTEA

Bazkide-Lagun, agur.
Urteko Ohiko Batzar Orokorra azaroaren 25ean, osteguna, izango da arratsaldeko 18:30ean hirugarren deialdian. (lehen deialdia 17:00ean eta bigarrena 17:30ean) Laskorain Ikastolako Kondeneako Aldapako egoitzan.

Bertan jorratuko diren gaiak honako hauek dira:

1. Bi bazkide izendatzea, Lehendakariarekin eta Idazkariarekin batera Batzar Nagusi honetako akta batzarra egindako egunetik hamabost eguneko epearen barruan onetsi eta sina dezaten.
2. Aurreko urteko aktaren berri eman.
3. Partaide berriak Artezkaritza Kontseiluan
4. Ekonomia:
 - 2020-2021 Balantzea eta 2021-2022 aurrekontua.
5. Irakaskuntza:
 - 2020-2021 emaitzak eta balorazioa
 - 2021-2022 Urteko plana: proiektuak eta helburuak
6. Galdera eta eskeak

www.laskorainkastola.eus



ZORION AGURRAK

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa



zozketak

Atarikideentzat **bi saski** ditugu



Errigorako bi saski zuri zozkatzen dira

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus